

IKUSKARITZA BATZORDEAREN OSAERA ETA DAGOZKION FUNTZIOAK

Izena	Kargua	Kategoria
MARÍA CARMEN IÑURRIA LANDERAS	Lehendakaria	Independentea
ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE	Kidea	Lan Bazkidea
ELENA ZARRAGA BILBAO	Kidea	Independentea

IKUSKARITZA BATZORDEAREN EGINKIZUN BEREZIAK ESTATUTUETAN (36 BEDERATZI ARTIKULUAN) JASOTAKOAK DIRA, HAU DA:

- a) BATZAR NAGUSIAN ARGIBIDEAK EMATEA, BAZKIDEEK BEREN ESKUMENENKO GAJETAN PROPOSATZEN DITUZTEN ARLOEI BURUZ.
- b) KANPOKO KONTU AUDITOREEN IZENDAPENA, LUZAPENA EDO KARGU UZTEA PROPOSATZEA KONTSEILU ERREKTOREARI, BATZAR NAGUSIAK ONESPENA EMAN DIEZAIEN.
- c) BARNE IKUSKARITZAKO ZERBITZUAK GAINBEGIRATZEA.
- d) SOZietatearen barne kontrolerako sistemen eta finantza informazioaren prozesua gainbegiratzeko.
- e) KANPOKO AUDITOREEKIN HARREMANAK IZATEA, INFORMAZIOA JASOTZEKO HORIEN INDEPENDENTZIA ARRISKUAN JAR LEZAKETEN GAIEN INGURUAN, KONTU IKUSKARITZAREN GARAPEN PROZESUARI LOTURIKO BESTE EDOZEIN GAIEN INGURUAN ETA KONTU IKUSKARITZAREN LEGERIAN ETA IKUSKARITZA ARAU TEKNIKOETAN AURREIKUSITAKO GAINERAKO JAKINARAZPENEN INGURUAN.
- f) URTEAN BEHIN, KONTU IKUSKARITZAREN TXOSTENA ARGITARATU AURRETIK, KONTU IKUSKARIEN EDO IKUSKARITZA SOZietateen INDEPENDENTZIARI BURUZKO IRIZPENA JASOKO DUEN TXOSTENA ARGITARATZEA. TXOSTEN HORRETAN, EDOZELAN ERE, AURREKO ATALEAN AIPATURIKO ZERBITZU OSAGARRIEN PRESTAZIOARI BURUZKO IRITZIA JASO BEHARKO DA.

ERA BEREAN, KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUTEGIAREN 10.3 ARTIKULUARI JARRAIKI, JOKABIDE KODEAK ETA GOBERNU KORPORATIBOAREN ARAUAK BETETZEN DIRELA JAGOTeko ESKUMENA ERE BADU ESLEITUTA.

ESTATUTU SOZIALEN ARABERA, IKUSKARITZA BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK DEIALDIA EGITEN BADU, BATZORDEAK BERAK EDO BESTE EDOZEIN KIDEK ESKATUTA. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTZEN DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK HAUSTEN DITU BERDINKETAK.

BATZORDEA OSATZEN DUTEN KONTSEILARIEN KATEGORIARI DAGOKIONEZ, MARIA CARMEN IÑURRIA (BATZORDEKO LEHENDAKARIA) ETA ELENA ZARRAGA KONTSEILARI INDEPENDENTEAK DIRA (KOPURU OSOAREN % 67) ETA ADOLFO PLAZA KONTSEILARI LAN BAZKIDEA DA (KOPURU OSOAREN % 33). BATZORDEAN EZ DAGO EZ KONTSEILARI DOMINIKALIK EZ EXEKUTIBORIK.

KONTSEILARI LAN BAZKIDEAK LAN BAZKIDE MODUAN EGITEN DU LAN ENTITATEAN ETA EZ DU GOI ZUZENDARITZAKO EGINKIZUNIK BETETZEN.

IZENDAPENEN BATZORDEAREN OSAERA ETA DAGOKION FUNTZIOAK

Izena	Kargua	Kategoria
ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO	Lehendakaria	Independentea
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	Kidea	Kanpoko beste Kontseilari
PABLO LUIS BRINGAS VELEZ	Kidea	Lan bazkidea
FRANCISCO JOSE DEAN PUEYO	Kidea	Lan bazkidea
MARIA ESTHER KORTA ERRAZKIN	Kidea	Independentea

2016KO APIRILAREN 29KO KONTSEILU ERREKTOREAK ERABAKI ZUEN IZENDAPENEN BATZORDEA ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA BEREIZTEA, KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIKO 11. ARTIKULUA ALDATU ONDOREN.

IZENDAPENEN BATZORDEAREN ZEREGIN BEREZIAK KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAN (11.b ARTIKULUAN) DAUDE JASOTA. HAUEK DIRA:

- a) KONTSEILU ERREKTOREAN HUTSIK GERATZEN DIREN POSTUETARAKO HAUTAGAIK AURKITU ETA GOMENDATZEA, KONTSEILU ERREKTOREAK EDO BATZAR NAGUSIAK ONETS DITZAN.
- b) KONTSEILU ERREKTOREAK EZAGUTZETAN, GAITASUNETAN, ANIZTASUNEAN ETA ESKARMENTUAN DUEN OREKA EBALUATZEA ETA IZENDAPEN JAKIN BATERAKO EGINKIZUN ETA GAITASUNAK DESKRIBATZEA, POSTURAKO AURREIKUSITAKO ARDURALDIA BALIOZTATUZ.
- c) ALDIAN BEHIN, EDO URTEAN BEHIN GUTXIENEZ, KONTSEILU ERREKTOREAREN EGITURA, TAMAINA, ERAKETA ETA JARDUKETA EBALUATZEA ETA BALIZKO ALDAKETEN GAINEKO GOMENDIOAK EGITEA.
- d) ALDIAN BEHIN, EDO URTEAN BEHIN GUTXIENEZ, KONTSEILU ERREKTOREAREN ETA BERTAKO KIDEEN EGOKITASUNA EBALUATZEA ETA ONDORIOAK KONTSEILU ERREKTOREARI JAKINARAZTEA.
- e) GOI ZUZENDARITZAKO KIDEAK HAUTATU ETA IZENDATZEARI BURUZ KONTSEILU ERREKTOREAK DARABILEN POLITIKA ALDIAN BEHIN BERRIKUSTEA ETA GOMENDIOAK EGITEA.
- f) KONTSEILARIAK ETA FUNTSEZKO LANGILEAK HAUTATZEKO ETA HORIEN EGOKITASUNA EBALUATZEKO PROZEDURARI BURUZKO ESKULIBURUAN ESLEITUTAKO EGINKIZUNAK.
- g) KONTSEILU ERREKTOREAN ORDEZKARI GUTXIEN DITUEN SEXUAREN ORDEZKARITZA HELBURUA FINKATZEA ETA ORDEZKARITZARIK TXIKIENA DUEN SEXUAREN PRESENTZIA HANDITZEKO ORIENTABIDEAK EMATEA, FINKATUTAKO HELBURUA LORTZE ALDERA.
- h) INDARREKO LEGERIAK ETA ESTATUTU SOZIALEK EZARTZEN DITUZTEN GAINERAKO EGINKIZUNAK ETA KONTSEILU ERREKTOREAREN ERABAKIZ ESLEITUTAKOAK BETETZEA

ARAUTEGIAREN ARABERA, ORDAINSARIEN BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK DEIALDIA EGITEN BADU, BATZORDEAK BERAK EDO BESTE EDOZEIN KIDEK ESKATUTA. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTZEN DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK HAUSTEN DITU BERDINKETAK.

BATZORDEA OSATZEN DUTEN KONTSEILARIEN KATEGORIARI DAGOKIONEZ, ITZIAR ELGARRESTA (BATZORDEKO LEHENDAKARIA) ETA MARIA ESTHER KORTA KONTSEILARI INDEPENDENTEAK DIRA (KOPURU OSOAREN % 40), PABLO LUIS BRINGAS ETA FRANCISCO JOSE DEAN KONTSEILARI LAN BAZKIDEAK DIRA (KOPURU OSOAREN % 40) ETA TXOMIN GARCIA KANPOKO BESTE KONTSEILARI BAT DA (KOPURU OSOAREN % 20). BATZORDEAN EZ DAGO EZ KONTSEILARI DOMINIKALIK EZ EXEKUTIBORIK.

KONTSEILARI LAN BAZKIDEAK LAN BAZKIDE MODUAN EGITEN DU LAN ENTITATEAN ETA EZ DU GOI ZUZENDARITZAKO EGINKIZUNIK BETETZEN.

KANPOKO KONTSEILARI ESATEN ZAIO KONTSEILARIEN GAINERAKO KATEGORIETAN SARTZEKO BALDINTZAK BETETZEN EZ DITUEN KONTSEILARIARI.

ORDAINSARIEN BATZORDEAREN OSAERA ETA DAGOZKION FUNTZIOAK

Izena	Kargua	Kategoria
ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO	Lehendakaria	Independentea
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	Kidea	Kanpoko beste Kontseilari
PABLO LUIS BRINGAS VELEZ	Kidea	Lan bazkidea
FRANCISCO JOSE DEAN PUEYO	Kidea	Lan bazkidea
MARIA ESTHER KORTA ERRAZKIN	Kidea	Independentea

2016KO APIRILAREN 29KO KONTSEILU ERREKTOREAK ERABAKI ZUEN IZENDAPENEN BATZORDEA ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA BEREIZTEA, KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIKO 11. ARTIKULUA ALDATU ONDOREN.

ORDAINSARIEN BATZORDEAREN ZEREGIN BEREZIAK KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAN (11.c ARTIKULUAN) DAUDE JASOTA. HAUEK DIRA:

- a) ENTITATEAN APLIKATUKO DEN ORDAINSARI POLITIKA OROKORRA KONTSEILU ERREKTOREARI PROPOSATZEA ETA KONTSEILU ERREKTOREAK ORDAINSARIEN GAINEAN —ENTITATEAREN ARRISKUAN ETA ARRISKUEN KUDEAKETAN ERAGINA DUTENAK BARNE—HARTU BEHARREKO ERABAKIAK PRESTATZEA.
- b) KONTSEILU ERREKTOREARI INFORMAZIOA HELARAZTEA, IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOAN SARTU DIREN ZUZENDARIEN ORDAINSARI POLITIKAZ ETA KONTSEILARIEN (IZAERA HORREGATIK ORDAINSARIA DUTENEAN), ZUZENDARI NAGUSIAREN ETA PAREKOEN ORDAINSARI OROKORREZ, BAI ETA KONTSEILU ERREKTOREAN EGINKIZUN EXEKUTIBOAK DITUZTEN KIDEEN BANAKAKO ORDAINSARIEZ ETA KONTRATUKO GAINERAKO BALDINTZEZ ERE.
- c) ORDAINSARI POLITIKAREN APLIKAZIOARI BURUZ URTEAN EBALUAZIO INDEPENDENTE BAT (BARRUKOA EDO KANPOKOA) EGITEN DELA ZIURTATZEA.
- d) ENTITATEAN EZARRITAKO ORDAINSARI POLITIKA ERRESPETATZEN DELA JAGOTEA ETA, ALDIAN BEHIN, IDENTIFIKATURIKO KOLEKTIBOAN SARTUTAKO ZUZENDARIEN, KONTSEILARIEN (IZAERA HORREGATIK ORDAINSARIA DUTENEAN), ZUZENDARI NAGUSIAREN ETA PAREKOEN ORDAINSARI POLITIKA BERRIKUSTEA.
- e) INDARREKO LEGERIAK ETA ESTATUTU SOZIALEK EZARTZEN DITUZTEN GAINERAKO EGINKIZUNAK ETA KONTSEILU ERREKTOREAREN ERABAKIZ ESLEITUTAKOAK BETETZEA.

ARAUTEGIAREN ARABERA, ORDAINSARIEN BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK DEIALDIA EGITEN BADU, BATZORDEAK BERAK EDO BESTE EDOZEIN KIDEK ESKATUTA. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTZEN DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK HAUSTEN DITU BERDINKETAK.

BATZORDEA OSATZEN DUTEN KONTSEILARIEN KATEGORIARI DAGOKIONEZ, ITZIAR ELGARRESTA (BATZORDEKO LEHENDAKARIA) ETA MARIA ESTHER KORTA KONTSEILARI INDEPENDENTEAK DIRA (KOPURU OSOAREN % 40), PABLO LUIS BRINGAS ETA FRANCISCO JOSE DEAN KONTSEILARI LAN BAZKIDEAK DIRA (KOPURU OSOAREN % 40) ETA TXOMIN GARCIA KANPOKO BESTE KONTSEILARI BAT DA (KOPURU OSOAREN % 20). BATZORDEAN EZ DAGO EZ KONTSEILARI DOMINIKALIK EZ EXEKUTIBORIK.

KONTSEILARI LAN BAZKIDEAK LAN BAZKIDE MODUAN EGITEN DU LAN ENTITATEAN ETA EZ DU GOI ZUZENDARITZAKO EGINKIZUNIK BETETZEN.

KANPOKO KONTSEILARI ESATEN ZAIO KONTSEILARIEN GAINERAKO KATEGORIETAN SARTZEKO BALDINTZAK BETETZEN EZ DITUEN KONTSEILARIARI.

ARRISKU BATZORDEAREN OSAERA ETA DAGOZKION FUNTZIOAK

Izena	Kargua	Kategoria
ELENA ZARRAGA BILBAO	Lehendakaria	Independentea
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	Kidea	Kanpoko beste Kontseilari
LUIS MARIA UGARTE AZPIRI	Kidea	Dominikala
AINHOA GALLASTEGUI MARTÍNEZ	Kidea	Lan bazkidea
NAGORE LARRABEITI LIBANO	Kidea	Independentea

ARRISKU BATZORDEAREN ZEREGIN BEREZIAK KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAN (11 BIS ARTIKULUAN) DAUDE JASOTA. HAUEK DIRA:

a) KONTSEILU ERREKTOREARI AHOLKU EMATEA, ENTITATEAREN ARRISKURAKO JOERA OROKORRAREN (EGUNGOAREN ETA ETORKIZUNEKOAREN) ETA ARLO HORRETAKO ESTRATEGIAREN INGURUAN, ETA LAGUNTZEA ESTRATEGIA HORI ETA ARRISKUAK KUDEATU, GAINBEGIRATU ETA MURRIZTEKO POLITIKA ZEHATZAK EZARTZEN DIREN JAGOTEN.

b) BEZEROEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN AKTIBOKO ETA PASIBOKO PRODUKTUEN PREZIO POLITIKAK ENTITATEAREN EREDUA ETA ARRISKU ESTRATEGIA AINTZAT HARTZEN DITUEN EGIAZTATZEA. HORRELA IZAN EZEAN, HORI KONPONTZEKO PLANA AURKEZTEA KONTSEILU ERREKTOREARI.

c) KONTSEILU ERREKTOREA AHOLKATZEA, ENTITATEKO ARRISKU ESANGURATSU GUZTIAK KUDEATU ETA GAINBEGIRATZEN.

d) KONTSEILU ERREKTOREARI AHOLKU EMATEA, ARRISKUEN ALORREKO STRESS TESTAREN ETA KAPITALAREN PLANGINTZAREN INGURUAN.

e) ARRISKUAK KUDEATZEKO ETA BARNE ANTOLAMENDUA ERAGINKORRA IZATEKO BALIABIDE EGOKIAK ESLEITZEN DIRELA EGIAZTATZEA.

f) ARRISKU GAJETAN KONTSEILU ERREKTORETIK ANTOLAMENDURA ETA ALDERANTZIZ INFORMAZIO BIDE ERAGINKORRAK DAUDEN EGIAZTATZEA; BATZORDEAK BERAK ETA KONTSEILU ERREKTOREAK ARRISKUEN GAINEAN JASO BEHARREKO INFORMAZIOAREN IZAERA, KOPURUA, FORMATUA ETA MAIZTASUNA ZEHATZEA, KONTSEILU ERREKTOREAREKIN BATERA.

g) AKTIBOEN BALIOZTAPENA, KANPOKO KREDITU KALIFIKAZIOEN ERABILERA ETA ARRISKUEI BURUZKO BARNE EREDUAK GAINBEGIRATZEA.

h) ORDAINSARIEN GAINEKO ARRAZOIZKO POLITIKAK ETA JARDUNBIDEAK EZARTZEN LAGUNTZEA. ORDAINSARIEN SISTEMAN AURREIKUSITAKO PIZGARRI POLITIKAN ARRISKUA, KAPITALA, LIKIDEZIA ETA MOZKINEN PROBABILITATEA ETA AUKERA AINTZAT HARTUTA DAUDEN AZTERTZEA.

ARAUTEGIAREN ARABERA, ARRISKU BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK DEIALDIA EGITEN BADU, BATZORDEAK BERAK EDO BESTE EDOZEIN KIDEK ESKATUTA. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTZEN DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK HAUSTEN DITU BERDINKETAK.

BATZORDEA OSATZEN DUTEN KONTSEILARIEN KATEGORIARI DAGOKIONEZ, ELENA ZARRAGA (BATZORDEKO LEHENDAKARIA) ETA NAGORE LARRABEITI KONTSEILARI INDEPENDENTEAK DIRA (KOPURU OSOAREN % 40), TXOMIN GARCIA KANPOKO BESTE KONTSEILARI BAT DA (KOPURU OSOAREN % 20), LUIS M^a UGARTE KONTSEILARI DOMINIKALA DA (KOPURU OSOAREN % 20) ETA AINHOA GALLASTEGUI KONTSEILARI LAN BAZKIDEA DA (KOPURU OSOAREN % 20). BATZORDEAN EZ DAGO KONTSEILARI EXEKUTIBORIK.

KONTSEILARI LAN BAZKIDEAK LAN BAZKIDE MODUAN EGITEN DU LAN ENTITATEAN ETA EZ DU GOI ZUZENDARITZAKO EGINKIZUNIK BETETZEN.

KANPOKO KONTSEILARI ESATEN ZAIO KONTSEILARIEN GAINERAKO KATEGORIETAN SARTZEKO BALDINTZAK BETETZEN EZ DITUEN KONTSEILARIARI.